

# ESPERIENTZIAREN IZENA: Sawa. All the women together, today and tomorrow



## OINARRIZKO DATUAK

- **Erakundearen izena:** SAWA, Emakume guztiok elkarrekin, gaur eta bihar
- **Erakunde mota:** GKE.
- **Sortze-urtea:** 1998.
- **Jarduera-sektoreak:**
  - Emakumeen eskubideak.
  - Adin txikikoen eskubideak.
- **Egitura:** Soldatapeko pertsonala eta boluntarioak.
- **Kokapena:** Ramala eta Jerusalem.
- **Webgunea:** <http://www.sawa.ps/en/>
- **Esperientziak jorratzen duen gaia:** SAWA, All the women together, today and tomorrow.
- **Jarduera eremua:** Estatuak.

## HARREMANETARAKO DATUAK

- **Harremanetarako pertsona:** Ohaila Shomar, zuzendari nagusia
- **Telefonoa:** (+972) 54 6324 602 edo (+972) 59 8903 343
- **Helbide elektronikoa:** ohaila@sawa.ps

## SINTESIA

### ESPERIENTZIAREN DESKRIBAPEN OROKORRA:

Sawa irabazi asmorik gabeko erakunde palestinarra da. Emakumeen eta adin txikikoen aurkako indarkeria mota guztien kontra jarduten du. Palestinako gizartean indarkeriarik ezaren eta genero-berdintasunaren kultura zabaldu nahi du. Horrez gain, indarkeria mota horren biktimei lagundu eta komunitateko kideei aholku ematen die, konfidentzialtasun osoz.

## ERAKUNDEAREN LANA

### Erakundearen programak:

**Entzute Programa:** Hiru digituko telefono-zenbaki nazionala da (121), emakume eta haur palestinarrek babesteko sortutakoa. Indarkeria mota guztiak eta abusuak jasan dituzten emakume, gazte eta haurrei laguntza eta oinarriko aholku soziala eta psikologikoa eskaintzea du xede. Entzute-zentroak telefono bidezko laguntza medikoa eta juridikoa eskaintzen du. Horrez gain, solaskideari aholkua eman eta antzeko beste erakunde batzuetara bideratzen du.

Zentroan prestakuntza eta kualifikazio handiko pertsonalak egiten du lan. Pertsonalak beharrezko gaitasunak ditu telefono, txat eta posta elektronikoko bidezko oinarriko laguntza eta aholkularitza psikologiko eta soziala eskaintzeko, eta teknologia aurreratuko komunikabideak erabiltzen ditu.

**Komunitatean hezkuntza eta kontzientziazioa zabaltzeko programa:** Programa horren helburua da kontzientziazioa handitzea eta komunitatea hezteko emakumeen aurkako indarkeria, abusu eta irain mota guztiak gaitzesteko. Horrez gain, etxeko- bizikidetzaren eta sexu-hezkuntzaren inguruko kontzientziazioa zabaldu nahi du. Helburu horiekin, hitzaldiak eta lantegiak antolatzen ditu tokiko komunitateko kideentzat, baita profesio-

nalentzako berariazko ikastaroak ere. Era berean, indarkeria mota guztien aurkako prebentzio-neurrien inguruko kontzientziazio-kanpainak eta - liburuxkak eta aldizkako txostenak ere prestatzen ditu. Hezkuntza-programak bigarren mailako ekimen batzuk hartzen ditu barne, komunitatearen beharrei aurre egiteko xedez. Horien artean, hauek aipa daitezke:

- **Klinika psikosozial mugikorra:** eremu baztertu eta urrunetara eta apartheid- hormaren alboko eremuetara iristeko diseinatua.
- **“Zatoz eta hitz egin dezagun” programa:** gurasoen eta adin txikikoen arteko hutsunea betetzeko helburua du, errespetuan, giza eskubideetan eta adin txikikoen eskubideetan oinarritutako elkarrizketa konstruktiboaren oinarriak finkatzeko.
- **“Aurrez aurreko aholkularitza-zentroa”:** zentro espezializatua da; aholkularitza psikologiko eta soziala eskaintzen die adin eta bizitza-esparru guztietako pertsonei, hala nola familiaren, eskolaren, lanaren eta abarren esparrukoei. Aholkularitza psikologikoan eta sozialean espezializatutako talde batek kudeatzen du zentroa, eta banakako saio konfidentzialak eskaintzen ditu, pribatutasuna bermatzearen.
- **Boluntario programa:** gaitasun eta trebetasun profesionalak garatu nahi dituzten ikasle eta unibertsitate-graduatuak erakartzeko diseinatu da. Prestakuntza eta kualifikazioa ematen die boluntario gisa, eta erakundearen boluntarioritza-programetara bideratzen ditu. Prestakuntza-ikastaroak aholkularitza sozialeko 110 ordu eta lan boluntarioko 220 ordu irauten du, hurrenez hurren entzute-programarako eta komunitate-hezkuntzarako eta - kontzientziaziorako.